

## **AECC Gipuzkoak Zumaiara hurbilduko du ostirala honetan azaleko minbiziaren kanpaina**

- **10etatik 13tara egongo da azaleko minbiziaren aurkako prebentzioko kanpaina, Itzurungo hondartzara helduz.**
- **Beren azaleko melanina neurtuko diete eguzki-izpiekiko esposiziorako gomendatutako denbora ezagutzeko asmoz**

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak ostiral honetan Itzurungo hondartzara eramango du azaleko minbiziaren aurkako prebentzio kanpaina. Boluntarioen laguntzarekin langile kualifikatuak izango dituen unitate mugigarri egokitu batek Gipuzkoako hondartza guztiak eta kostaldekoak ez diren beste udalerrri batzuk bisitatuko ditu eguzki-espozizioarekin lotutako arriskuei buruzko informazioa emateko. Horretarako, nahi duten guztiei, beren azaleko melanina neurtuko diete eguzkiizpiekiko esposiziorako gomendatutako denbora ezagutzeko asmoz. Era berean, eguzkia behar bezala hartzeko neurriak jasotzen ditzuten azalpen-materialak eman eta azalaren automiaketa egiteko argibideak eskainiko dituzte. Eta nola ez, bertaratutakoek egin ditzaketen zalantzak argitzeko balioko du ekimenak. Doakoa den jardunaldi honen orduategia 10:00etatik 13:00tara bitartekoa izango da.

Bost astez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailarekin elkarlanean egingo den azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina kostako 8 herrialde eta barnealdeko beste 7 herrialde zeharkatzen ari da. Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak bultzatutako kanpainak, uztailaren 23 arte jarraituko du martxan, eta Getarian (uztailak 16a) eta Deban (uztailak 17a) egongo da.

“Azaleko minbizia da mundu osoan ohikoena eta beste edozein tumore baino bizkorrago ari da ugaritzen. Hala ere, minbizia mota guztien artean, modu errazenean prebeni daitekeena da.” Adierazi du Mainer Sierrak, AECC Gipuzkoako prebentzio arloko arduradunak.

Zabaltzen ari diren alhokuen artean, babesa bi orduz behin edo bainua hartu ondoren berritzea, begiak babestea eguzkitako betaurrekoak edo kapelu hegatzabalak erabilia edo hidratatzea, hurrengan eta adinekoengan arreta berezia jarrita. Lainotuta dagoen egunetan, eguzki-erradiazioa beste egun batzuetakoa bezain handia denean arriskuak bere horretan jarraitzen duela azpimarratuko du beste mezu batek. Hori dela eta, beharrezkoa da geure buruak berdin-berdin babestea eta, batez ere, erradiazio ultramorearen maila handieneko orduetan: eguerdiko 12:00ak eta arratsaldeko 16:00ak artean. Horrez gain, aholkuek nabarmenduko dute beharrezkoa dela azalaren



azterketak egitea aldizka edo orban edo orinen kolorean, forman edo neurrian aldaketaren bat gertatzen denean

Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak, AECC Gipuzkoak, lurraldeko hondartzetak megafonia bidez mezuak igorriko ditu erabiltzaileak eguzkierradioaren arriskuetatik babesteko.